



**RASFF-EKO ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK**  
**2. LAUHILEKOA**


elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2005. urteko bigarren lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira 981 alerten eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

| <b>Kutsadura-iturria</b>        | <b>Portzentajea</b> |
|---------------------------------|---------------------|
| <b>Mikotoxinak / biotoxinak</b> | <b>%2</b>           |
| <b>Kutsadura kimikoa</b>        | <b>%33</b>          |
| <b>Kutsadura biologikoa</b>     | <b>%26</b>          |
| <b>Metal astunak</b>            | <b>%6</b>           |
| <b>Pestiziden hondakinak</b>    | <b>%3</b>           |




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen **%90ean**, kutsadura **AFLATOXINEK** eragin dute eta, horrelakoetan, **PISTATXOAK** kutsaduren %60 eragin du. Bestalde, kasuen **%91n** pistatxoak **IRANetik** zetozen. Bigarren produktu garrantzitsua **KAKAHUETEa** da. Honek afltoxinek eragindako kutsaduren **%20** eragin ditu, eta **TXINA** izan da jatorrizko herrialdea kasuen **%41ean**.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 45 eragin ditu: Kutsaduren % 35 espezia eta infusioen artean gertatu dira, eta % 29 txerrikian. Kasu bietan, eta produktu bietarako **Asia eta Europa** izan dira jatorrizko herrialdeak kasuen % 78an eta % 68an, hurrenez hurren. **Listeria monocytogenesek** kutsaduren % 13 eragin ditu. Kutsadura horien eragileak **arraina** eta **gazta** izan dira, % 40an eta % 25ean, hurrenez hurren. Kutsaturiko arrainen % 54 **Vietnamekoak** ziren; eta kutsatutako gaztak, aldiz, **Europa**koak % 100ean.

Kutsadura kimikoari dagokionez, kasuen % 52an **Koloragarriak** izan dira eragile nagusiak, **Sudan Kolorea** hain zuzen, kasuen %43an erruduna izanik; koloragarri horrekin batera, **espeziak** izan dira kutsadura kimikoen eragileak % 90ean, eta horien % 92 **Europa**koak izan dira. Bestalde, **Sulfitoak** izan dira kutsadura kimikoen eragileak, kasuen % 12an; eta horien % 71n, **ganbak** eta **karramarroak** izan dira eragile zuzenak.

|                             |     |                               |           |              |           |        |           |
|-----------------------------|-----|-------------------------------|-----------|--------------|-----------|--------|-----------|
| <b>Mikotoxinak</b>          | 317 | <b>Aflatoxinak</b>            | 288 (%90) | pistatxoak   | 172 (%60) | Iran   | 156 (%91) |
|                             |     |                               |           | kakahueteak  | 59 (%20)  | Txina  | 24 (%41)  |
| <b>Kutsadura biologikoa</b> | 253 | <b>Salmonella sp.</b>         | 113 (%43) | espeziak     | 40 (%35)  | Asia   | 31 (%78)  |
|                             |     |                               |           | infusioak    |           | Europa | 22 (%67)  |
|                             |     | <b>Listeria monocytogenes</b> | 33 (%13)  | haragia      | 33 (%29)  | Asia   | 7 (%54)   |
|                             |     |                               |           | arraina      | 13 (%40)  | Europa | 8 (%100)  |
|                             |     |                               |           | gazta        | 8 (%25)   |        |           |
| <b>Kutsadura kimikoa</b>    | 322 | <b>Koloragarriak</b>          | 165 (%51) |              |           |        |           |
|                             |     | Sudan Kolorea                 | 70 (%43)  | espeziak     | 61 (%90)  | Europa | 56 (%92)  |
|                             |     | <b>Sulfitoak</b>              | 38 (%12)  | ganbak       | 20 (%53)  | Europa | 10 (%50)  |
|                             |     |                               |           | karramarroak | 7 (%19)   | Afrika | 7 (%100)  |

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoa izan zen:



Asiari dagokionez, kutsaduren % 37k **Iranen** izan zuten jatorria, ondoren **Vietnamen % 13k**, eta, azkenik, **Txinan %12k**, hurrenez hurren. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien eragin zituzten herrialdeen artean **Espainia eta Alemania** izan ziren (**%13**), eta ondoren **Turkia (%11)**. Eta azkenik, Afrika kontinentearen barruan, bi nabarmen du ziren: **Ghana** (jakinarazpenen % 29) eta **Nigeria, %12**.

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentaia hurrengoa izan zen:

